



ALTZOKO UDALA
Tel. 652413 — Fax: 650955
20268 ALTZO (Gipuzkoa)

UDALAREN OHARRA

2016ko ABUZTUAREN 14an, IGANDEAN, ALTZON, DONOSTIA-2016ko “BIDEA-2016” EKITALDIA .

“DONOSTIA 2016”en barruan Gipuzkoa osoa zeharkatzeko asmoarekin “BIDEA 2016” proiektua martxan jarri da. Proiektu honen barruan, Altzotik ere pasatzea aurreikusita dago, abuztuaren 14an, igande eguerdian. 150 pertsona inguru Altzora etorriko direla aurreikusten da.

Altzoko Udalak, beste herrietan bezala, talde honentzat harrera festa bat antolatu nahi luke, ondorengo egitarauarekin:

13:00etan Altzoko Haundiaren errepresentazioa

14:00etan Bazkaria herriko plazan, zahagi ardo gisa sagardoarekin. Norberak bere bazkaria ekarriko du eta Donostia 2016ek edaria jarriko du.

Beraz, Altzoko Haundiaren errepresentazioa egiteko herritarron parte hartzea behar dugu eta eskatzen dizuegu Udaletxera deitu eta izena ematea:

- 1- Dantzari gisa aritzeko (hauek dantzako irakasleari eman behar diote izena), Altzoko Haundiaren inguruan
- 2- Bertso paperak banatzen aritzeko neska-mutil haurrak

Esan bezala, funtzio hauek betetzeko prest zaudetenak Udaletxeko 943652413ra deitu dezakezue uztailaren 22a baino lehen.

Altzon, 2016ko uztailaren 12an
Udalak.